



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de marzo de 2019

Lehendakaritza

350.000 €-KO LAGUNTZA, SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO– SMH-REN AITA MARI PROIEKTURAKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, baimena eman du, 350.000 euroko laguntza emateko Salvamento Marítimo Humanitario-SMH GKEari, *AitaMariZubia#MAYDAYTERRANEO2019* proiekturako. Laguntza horren bidez –Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusitik jasoko du laguntza hori–, larrialdietako profesionalek eta boluntario askok eratzen duten elkarte horrek Erdialdeko Mediterraneoan galdutako pertsonak zaintzeko eta biltzeko lan humanitarioa egingo du. Lan humanitario hori funtsezkoa da ehundaka pertsonen bizitza salbatzeko, izan ere, horietako asko emakumeak eta haurrak dira, oso bidaia arriskutsu bati ekin behar izan diotenak egoera dramatikoetatik ihes egiteko.

SMH erakundea 2015. urtearen amaieran sortu zen, Europara Mediterraneoko ibilbideen bitartez iristen ari zen migratzaile eta errefuxiatu kopuru handiari herritarrek emandako erantzunaren ondorioz. 2017aren erdialdetik, sartzeko bide nagusia Libia eta Italia bitarteko itsas bidea izan da. Errefuxiatu eta migratzaileen %40 baino gehiago emakumeak eta adingabeak izan ziren eta, adingabeen artean, bidaiderik gabeko adingabe-kopuruak edo beren familietatik banandutako adingabe-kopuruak nabarmen egin zuen gora, eta kontabilizatutako adingabe guztien laurdena izan zen.

Egoera horretan, iaz, SMHk, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, proiektu bat jarri zuen abian, *Aita Mari* itsasontzia prestatzeko eta ospitaleko materialarekin hornitzeko, itsas erreskateko eta osasun-laguntzako jarduerak egin ahal izateko nazioartearen babesaren bila ari diren errefuxiatuekin. 2018ko irailean aurkeztu zenetik, *Aita Mari* porturatuta egon da, itsasoratzeko Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiaren ziurtagiriak jaso behar baititu. Azkenean, itsasontziak martxoaren 15ean abiatu zuen bidaia, Galiziako kostaldera, oraingoz.

Egungo egoera aldakorra dela kontuan hartuta eta baimenen helburu diren nabigazio-eremuen arabera, ontziak Espainiako kostaldetik, Mediterraneo osotik edo Ozeaniako uretatik nabigatzeko instrukzioak izango ditu, behaketako eta erreskateko misioak egiteko, Egeoko uharteetan osasun-laguntza sendotzeko, laguntza humanitarioa emateko eta ingurumen-arloko laguntza emateko (kostaldea garbitzeko eta itsas plastikoak jasotzeko).

Lehendakaritza

**EGIN DA BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO
PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA; GUZTIRA 1,1 MILIOI EURO
BIDERATUKO DIRA**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du gaurko bileran bizikidetzarako eta giza eskubideetarako proiektuetara bideratutako laguntzen deialdia; 1.150.000 euro bideratuko dira, guztira.

Laguntza horien helburua gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideekiko errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura eta biktimak gizartera hurbiltzea da eta, horretarako, partekatutako espazioak sortzea.

Zehazki, Euskadiko **udalerriek** eta gainerako toki-erakundeek egingo dituzten proiektuak finantzatzeko laguntzen deialdia egin da (250.000 euro) eta irabazi-asmorik gabeko **erakunde pribatuek** martxan jartzen dituztenak finantzatzekoa; horien barruan daude bizikidetzeta eta giza eskubideak helburu dituzten terrorismoaren biktimen elkarteak eta pertsona fisikoak (900.000 euro).

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDEKO IKASLEEK PRAKTIKAK EGIN AHALCO DITUZTE EUSKO JAURLARITZAKO ZERBITZU JURIDIKOETAN

- **Eusko Jaurlaritzak eta Deustuko Unibertsitateak hitzarmena sinatuko dute, Zuzenbideko ikasleek beren prestakuntza osatu eta etorkizuneko lanbide-jarduerarako prestatuta egoteko beharrezko gaitasunak eskuratu ahal izateko**

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Hezkuntza Lankidetzako Hitzarmena*” sinatzea onetsi du, Deustuko Unibertsitatearen eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren artean, Zuzenbideko eta Lan Harremanetako Fakultateko ikasleek curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egin ahal izateko Sail honetan.

Ikasleek, horrela, beren prestakuntza akademikoan eskuratutako ezagutzak aplikatu eta osatu, lanbide-jardueretan prestatzeko gaitasunak eskuratu eta beren enplegarritasuna eta ekintzaitza-gaitasuna hobetu ahalko dituzte.

Praktikak curriculumekoak izan ahalko dira, alegia *Ikasketa Planeko* jardura akademikoak, edo curriculumetik kanpokoak, alegia ikasleak borondatez egiten dituenak prestakuntza-aldian. Praktikak egiteko iraupena eta ordutegiak beti izango dira bateragarriak ikasketa- eta prestakuntza-jarduerarekin, eta ezingo dute ikasturtearen ehuneko berrogeita hamar baino handiagoa izan.

“*Hezkuntza Lankidetzako Hitzarmena*” laster sinatuko dute Josu Erkoreka Gobernantza Publikoko eta Autogobernu Saileko sailburuak eta Genma Tomás Zuzenbideko eta Lan Harremanetako Fakultateko dekanok.

LANAREN SEGIMENDUA

Praktiketako ikasleek Deustuko Unibertsitateak izendatutako tutore bat eta Eusko Jaurlaritzak izendatutako beste bat izango dute. Praktikak amaitzean, Deustuko Unibertsitateak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean bere tutoretzaz arduratu den pertsonak emandako amaierako txostena jasoko du. Txosten horretan, egindako ordu-kopurua, gaitasun teknikoaren balioespena, ikaskuntzaren, sormenaren eta ekimenaren balioespena, motibazioa, taldean lan egiteko gaitasuna eta abar jasoko dira. Era berean, praktikak egin dituztenek amaierako txostena aurkeztuko dute eta, bertan, egindako lanak deskribatuko dituzte, balioespena egingo dute edo eskuratutako gaitasunak jasoko dituzte.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK ONETSI DU 10 MILIOI EUROREKIN DIRUZ LAGUNTZEA VITORIA-GASTEIZKO UDALARI, EUSKADIKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA IZATEAGATIK

- Inbertsio hori “*2019. urterako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa*”n sartzen da; gainera, Sailaren lehentasunezko kudeaketa-arloetako inbertsioak jaso ditu
- 2019ko Planak beste sustapen bat eman dio, 2,2 milioi eurokoa, Euskadiko biztanle-kopuru txikieneko eta irisgarritasun gutxieneko nukleoetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak zabaltzeko

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*2019. urterako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa*” onetsi du, Sail honen dirulaguntza ildoan plangintza egiteko lan-dokumentua. Politika publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egiteko tresna baliotsua da. Gaurtik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratuta egongo da, herritarrek gardentasun osoz kontsultatzeko.

2019. urte honetan, Planak aurreikusten duen dirulaguntza garrantzitsuena **10 milioi eurokoa da, Vitoria-Gasteizko Udalak** ekipamenduko, mantentze-lanetako edo birgaitzeko inbertsioak egin ahal izateko eta Euskadiko erakunde komunak egoitza izateagatik eragiten diren gastuak ordaintzeko. Halaber nabarmentzekoak dira **2019. urte honetan** Euskadiko biztanle-nukleoetan **belaunaldi berriko banda zabaleko sareak zabaltzen jarraitzeko** eta, horrela, “gune zuri” izenekoak ezabatzeko **aurreikusitako 2,2 milioi euroak**. Helburua da asmo handiko proiektu horrekin aurrera jarraitzea; horren bidez, Eusko Jaurlaritzak espero du, aurrean, 82 biztanle-nukleo berritan NGA banda zabalaren baldintzetan Interneteko konexio azkarra eta segurua ezartzea: 14 Araban, 48 Bizkaian eta 20 Gipuzkoan.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiak Euskadiko 1.700 eraikin publikoetan, parkeetan, poligonoetan eta industria-arloetan eta Euskadiko biztanle-nukleo guztietan banda zabala gaitzeko dituzten baterako jarduketara koordinatuz gainera, orain laguntza hauek ere badaude.

BESTE INBERTSIO BATZUK

Gainera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak honako hauek egingo ditu:

1. Euskal Funtzio Publikoko **sindikatuak jardunerako babes finantzieroa**: 432.000 euroko zuzeneko diru-laguntza ELA, LAB, CCOO, UGT, SATSE, SME, STEE-EILAS, ERNE, ESA, SIPE eta HITZA sindikatuen artean, ordezkaritzaren arabera, banatzeko.

2. Euskadiko **toki-erakundeetan tokiko autonomia garatu**: 100.000 euroko zuzeneko diru-laguntza EUDELentzat formakuntza, jardunaldiak, eta abar antolatzeko.
3. Euskal fundazioen legezko betebeharrak betearazi: 15.000 euroko zuzeneko diru-laguntza FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioarentzat, **fundazioen arloko formakuntza eta jarduerak antolatzeko**.
4. 2019 ekitaldian **Euskal zuzenbide zibilari eta autonomikoari buruzko azterlana, zabalkundea eta informazio publikoa eguneratu**: 8.000 euroko zuzeneko diru-laguntza Zuzenbidearen Euskal Akademiarentzat www.forulege.com web orrialdearen bidez epailtza, fiskaltza, abokatutza, prokuradoretza, erregistro, notariotza, eta abarreko profesionalen artean Euskadiko berezko Zuzenbidea hedatzeko.
5. Open Data Euskadi webgunea sustatu eta datu irekien erabilera eta horien ondoriozko zerbitzuak sortzea bultzatu eta, horretarako, **Open Data Euskadi 2019 sariak** deitu: 14.000 euro.
6. Herritar antolatuek sortutako balio publikoa aitortzeko eta ikusarazteko, **2019ko Elkarlan Sarien** bitartez, herritarrek parte hartzeko proiektuen bidez, erakunde aldetiko laguntzarekin edo laguntzarik gabe, 2019ko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria zabaltzeko konpromiso gisa: 18.000 euro.

Hezkuntza

480.000 EURO HEZKUNTZA-BIKAINASUNERA ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019-2020 ikasturtean hezkuntza-bikaintasunera zuzendutako prestakuntza-proiektuak martxan jartzeko itunpeko ikastetxeak eta Hezkuntza Sailaren menpe ez dauden unibertsitatez kanpoko titularitate publikoko ikastetxeak (heziketa-zikloak izan ezik) deitzen dituen Agindua. Deialdi honek 480.000 euroko diru-kopurua dauka.

Ikastetxea zein irakaslea funtsezkoak dira irakatsi eta ikasteko prozesuan, parte aktiboa izan behar dute hobetzeko prozesuan, eta etengabeko hausnarketan aritu. Horregatik, deialdi honek proposatzen du prestakuntza eta berrikuntza-jarduerak nahiz proiektuak ikastetxeetatik beraietatik eta haien premietatik abiatu beharrekoak direla. Horrela, soluzioak ikastetxean bertan aplika daitezke, eragin onuragarria eta neurgarria izan dezaten. Ikastetxe jakin baten barruko bikaintasun-proiektuek eta esperientziek eragin handiagoa dute, irakasleei, gainerako langileei eta ikasle guztiei eragiten baitie.

Ikastetxeek deialdi honetara aurkezten dituzten proiektuek, jarraian zehaztuko diren hezkuntza-bikaintasunerako prestakuntza-proiektu motaren baten barnean kokatuak egon beharko dute:

-Berrikuntza-proiektu integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak: berrikuntza-proiektu integralek prestakuntza-jarduerak proposatzeko eta zentroaren hezkuntza-ereduaren gainean hausnartzeko aukera ematen diete ikastetxeei, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan beharrezko hobekuntzak sartzeko, konpetentziak eskuratzean oinarritutako ikuspegitik. Proiektu hauen iraupena bi edo hiru ikasturtekoa izango da. Bestetik, curriculumak aberasteko proiektutzat hartzen dira, ikasgelan metodologia aktiboak ezartzen dituztenak, eta ikasle guztiak artatu eta aberasteko jarduerak ezartzen dituztenak, betiere ikasleen ikasketarako motibazioa piztea helburu izanik. Proiektu hauek eskolaz kanpoko jarduerak ere har ditzakete. Prestakuntza modalitate honetarako 134.000 euro bideratzen dira, deialdiaren barnean.

-Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak: proiektu hauek, zeharkako gaitasunak lortzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren inguruan prestakuntza-jarduerak proposatzeko aukera ematen diete ikastetxeei, eta era berean, aukera eskaintzen diete ikasleek eskuratutako jakintzak praktikan jartzeko eta gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik edukirik esanguratsuenak hautatzeko egoera-arazoak aztertzeko. Proiektu hauek aintzat hartu beharko dute ikastetxearen hobekuntza globala. 346.000 euro bideratuko dira proiektu hauetarako.

2018-2019 ikasturte honetan, hezkuntza-bikaintasunerako 88 prestakuntza-proiektuk jaso dute diru-laguntza –hiru mota horietakoren batean- iazko deialdian haiek aurkeztu zituzten ikastetxeetan garatu ahal izateko.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2019ko DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

- **149,6 milioi euro jasotzen ditu dokumentuak, 58 diru-laguntza lerrotan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, Sail honen 2019 urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan Hezkuntza Sailaren lau Sailburuordetzek eta zortzi Zuzendaritzek kudeatzen dituzten diru-laguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, diru-laguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan. Era honetan, tresna honen bidez sailaren jardute-eremuan eraginkortasun maila areagotzea lortzeaz gain, gardentasuna sendotzea ere lortzen da.

Orotara, 58 diru-laguntza lerro ditu egun Hezkuntza sailak, eta horien kopuru osoa 149.688.664 eurokoa da 2019 urterako. 58 deialdi horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolaratzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak, irakasleen prestakuntzarako deialdiak, ikerketa sustatzeaz arduratzen direnak, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekimendua eskuratzea helburu dutenak edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzera bideratuta dauden diru-laguntzak.

Gobernu Kontseiluan onartu ondoren, Hezkuntza Sailaren 2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Sail honen webgunean kontsultatu ahal izango da osorik, bihartik, martxoaren 21etik aurrera.

Presidencia

AYUDA DE 350.000 € PARA EL PROYECTO AITA MARI DE SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO-SMH

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la concesión de una ayuda de 350.000 euros a la ONG Salvamento Marítimo Humanitario-SMH para su proyecto *AitaMariZubia#MAYDAYTERRANEO2019*. La ayuda –que será concedida a través de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación– permitirá a esta asociación formada por profesionales de emergencias y por un nutrido número de personas voluntarias, realizar una labor humanitaria de vigilancia y recogida de personas náufragas en el Mediterráneo Central; una labor humanitaria que resulta fundamental para salvar la vida de cientos de personas, muchas de ellas mujeres, niños y niñas que se ven obligadas a emprender un viaje muy peligroso huyendo de situaciones dramáticas.

SMH nació a finales del año 2015 como resultado de la respuesta ciudadana al fenómeno de la llegada a Europa de migrantes y personas refugiadas a través de las rutas del Mediterráneo. Desde mediados de 2017 la principal ruta de entrada ha sido la vía marítima entre Libia e Italia. Más del 40% de los refugiados y migrantes fueron mujeres y menores de edad, y entre estos últimos, el número de menores no acompañados o separados de sus familias aumentó considerablemente, alcanzando un cuarto del total de menores contabilizados.

Ante esta situación, el año pasado SMH puso en marcha -con ayuda del Ejecutivo vasco- un proyecto que consistió en preparar y equipar con material hospitalario el barco *Aita Mari*, para poder realizar operaciones de rescate marítimo y de asistencia sanitaria a personas refugiadas en busca de protección internacional. Desde su presentación en septiembre de 2018, el *Aita Mari* ha permanecido atracado, a la espera de recibir por parte de la Dirección General de la Marina Mercante las certificaciones correspondientes para zarpar. Finalmente, el buque ha podido iniciar el viaje el pasado viernes 15 de marzo rumbo, por el momento, a costas gallegas.

Dado lo cambiante del escenario actual y dependiendo de las zonas de navegación para las que se otorgue los permisos, el buque tendrá instrucciones para navegar por el litoral español, por todo el Mediterráneo o, incluso, por otras aguas oceánicas, realizando misiones de observación y rescate; refuerzo de asistencia sanitaria en las islas del Egeo; asistencia humanitaria; y de medio ambiente (limpieza de litoral y retirada de plásticos marinos).

Presidencia

CONVOCADAS LAS AYUDAS A PROYECTOS EN MATERIA DE CONVIVENCIA Y DDHH, POR UN TOTAL DE 1,1 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde en su reunión de hoy a la convocatoria de las ayudas destinadas a proyectos en materia de convivencia y derechos humanos, a las que se van a destinar un total de 1.150.000 euros.

El objetivo de estas ayudas es promover en nuestra sociedad una cultura de convivencia, de respeto de los derechos humanos, de empatía y solidaridad y acercar las víctimas a la sociedad, a través de la creación de espacios compartidos.

En concreto, se ha dado luz verde a las ayudas destinadas a financiar proyectos que realicen los **municipios** y demás entidades locales de Euskadi (250.000 euros), así como los que pongan en marcha **entidades privadas** sin ánimo de lucro, en las que se incluyen las asociaciones de víctimas del terrorismo y las personas jurídicas que tengan entre sus objetivos la convivencia y los derechos humanos (900.000 euros).

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL ALUMNADO DE DERECHO DE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO PODRÁ REALIZAR PRÁCTICAS EN LOS SERVICIOS JURÍDICOS DEL GOBIERNO VASCO

- **El Gobierno Vasco y la Universidad de Deusto firmarán un convenio para que el alumnado de Derecho pueda completar su formación y adquirir las competencias que le preparen para el ejercicio de su futura actividad profesional**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la firma de un “*Convenio de Cooperación Educativa*” entre la Universidad de Deusto y el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno para que el alumnado de la Facultad de Derecho y Relaciones Laborales pueda realizar prácticas, curriculares o extracurriculares, en este Departamento.

Los y las estudiantes podrán así, aplicar y completar los conocimientos adquiridos en su formación académica, adquirir competencias que les preparen para el ejercicio de actividades profesionales y mejorar su empleabilidad y capacidad de emprendimiento.

Las prácticas podrán ser curriculares, es decir actividades académicas integrantes del *Plan de Estudios*, o extracurriculares, prácticas que el alumnado realice de manera voluntaria durante su periodo de formación. La duración y los horarios para la realización de las prácticas serán, siempre, compatibles con la actividad académica y formativa y no podrán superar el cincuenta por ciento del curso académico.

El “*Convenio de Cooperación Educativa*” será próximamente firmado por el Consejo de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, y la Decana de la Facultad de Derecho y Relaciones Laborales, Genma Tomás.

SEGUIMIENTO DEL TRABAJO

El alumnado en prácticas estará doblemente tutelado por una persona nombrada por la Universidad de Deusto y otra designada por el Gobierno Vasco. Al concluir las prácticas, la Universidad de Deusto recibirá un informe final por parte de la persona que se haya hecho cargo de su tutoría en el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno. Ese informe recogerá el número de horas realizadas, la valoración de su capacidad técnica, de aprendizaje, creatividad e iniciativa, motivación, capacidad de trabajar en equipo, etc. Así mismo, las personas que han realizado las prácticas, también, presentarán una memoria final con la descripción de los trabajos realizados, su valoración o las competencias adquiridas.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APRUEBA SUBVENCIONAR, CON 10 MILL/€, AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ POR SER SEDE DE LAS INSTITUCIONES COMUNES DE EUSKADI

- Esta inversión es parte del “*Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno para el año 2019*” que, además, incluye inversiones en áreas de gestión prioritaria del Departamento
- EL Plan 2019 da un nuevo impulso de 2,2 millones de euros a la extensión de las redes de banda ancha de nueva generación en los núcleos menos poblados y accesibles de Euskadi

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno para el año 2019*”, el documento de trabajo que permite la planificación de las diferentes líneas de subvención de este Departamento. Se trata de un valioso instrumento de gestión económico-financiera de las políticas públicas que, a partir de hoy, quedará publicado en la página web del Gobierno Vasco para consulta de la ciudadanía con total transparencia.

Este año, 2019, la subvención directa más importante que contempla del Plan es de **10 millones de euros para que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz** pueda realizar las inversiones en equipamiento, de mantenimiento o rehabilitación, y costear los gastos ocasionados por ser la sede de las instituciones comunes de Euskadi. También destacan los **2,2 millones de euros previstos para continuar, este año 2019, implantando las redes de banda ancha de nueva generación** en núcleos de población de Euskadi y eliminar, así, las denominadas “zonas blancas”. Se trata de dar continuidad a un ambicioso proyecto con el que el Gobierno Vasco espera implantar, este año, la conexión a Internet, rápida y segura, en condiciones de banda ancha NGA, en 82 nuevos núcleos poblacionales: 14 en Álava, 48 en Bizkaia y 20 en Gipuzkoa.

Estas ayudas se suman a las actuaciones conjuntas y coordinadas, del Gobierno Vasco y las tres diputaciones forales, para habilitar la banda ancha en los 1.700 edificios públicos, en los parques, polígonos y áreas industriales, así como en todos los núcleos de población de Euskadi.

OTRAS INVERSIONES

Además, el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno se ocupará de:

1. Apoyo financiero a la **actividad sindical en la función pública vasca**: subvención directa, de 432.000 euros, a los sindicatos ELA, LAB, CC.OO, UGT, SATSE, SME, STEE-EILÁS, ERNE, ESA, SIPE e HITZA en función de su representación.
2. Desarrollar la **autonomía de las entidades locales** de Euskadi: Subvención directa a EUDEL, de 100.000 euros, para la organización de actividades de formación, jornadas, etc.
3. Favorecer el cumplimiento de las obligaciones legales de las fundaciones vascas: Subvención directa a FUNKO, la confederación de fundaciones de Euskadi, de 15.000 euros, para **formación y actividades del sector fundacional vasco**.
4. Actualizar durante el ejercicio 2019 el **estudio, difusión e información pública sobre Derecho Civil y Autonómico Vasco**: Subvención directa, de 8.000 euros, a la Academia Vasca de Derecho para difundir, a través de la web www.forulege.com, el Derecho propio de Euskadi entre las y los profesionales de la judicatura, fiscalía, abogacía, procuraduría, registros, notariado, etc.
5. Promocionar el sitio web Open Data Euskadi y fomentar la utilización de los datos abiertos y la generación de servicios derivados de los mismos mediante la convocatoria de los **Premios Open Data Euskadi 2019**: 14.000 euros
6. Reconocer y visibilizar el valor público creado por la ciudadanía organizada, a través de proyectos de participación ciudadana con apoyo o no institucional, como compromiso del despliegue del Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana mediante la convocatoria de los **Premios Elkarlan 2019**: 18.000 euros

Educación

480.000 EUROS PARA PROYECTOS DE FORMACIÓN HACIA LA EXCELENCIA EDUCATIVA

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Educación, ha aprobado en su reunión de hoy, la Orden por la que se convoca a los centros concertados y centros de titularidad pública no dependientes del Departamento de Educación de enseñanza no universitaria (excepto ciclos formativos), para la realización de Proyectos de Formación hacia la Excelencia educativa durante el curso escolar 2019-2020. Esta convocatoria cuenta con un importe de 480.000 euros.

Tanto el centro educativo como el profesorado, son agentes fundamentales en el proceso de enseñanza-aprendizaje y deben ser parte activa del proceso de mejora, participando en una continua reflexión. Por esta razón, esta convocatoria propone que las acciones y los proyectos de formación e innovación han de partir del contexto de los centros y de las necesidades que éstos manifiestan. De esta manera, aportan soluciones prácticas factibles que se puedan aplicar en el propio centro y generen un impacto beneficioso y cuantificable. Los proyectos y experiencias de formación para la excelencia en el contexto de un centro educativo generan un mayor impacto, en cuanto que afectan a todo el profesorado, al resto del personal, y a todo el alumnado en su conjunto.

Los proyectos presentados a esta convocatoria por los centros educativos deberán responder a alguna de las siguientes modalidades de formación hacia la excelencia educativa:

-Proyectos integrales de innovación y proyectos de enriquecimiento curricular: Los proyectos integrales de innovación educativa ofrecen a los centros educativos la oportunidad de proponer actividades de formación y reflexionen en torno al modelo educativo del centro, de cara a introducir las mejoras necesarias en el proceso de enseñanza-aprendizaje, desde un enfoque centrado en la adquisición de competencias. Su duración será de entre dos y tres cursos. Por otra parte, se entiende como proyectos de enriquecimiento curricular aquellos que implementan en el aula metodologías activas y el desarrollo de programas de actividades para atender y enriquecer a todo el alumnado, con el fin de incentivar su motivación al aprendizaje. Estos proyectos podrán contemplar también actividades en horario extraescolar. Esta modalidad formativa contará con 134.000 euros, dentro de la convocatoria.

-Proyectos de formación para la innovación educativa: se trata de proyectos que ofrecen a los centros educativos la oportunidad de proponer actividades formativas en torno al proceso de enseñanza-aprendizaje para el logro de las competencias transversales, así como la elaboración de

situaciones-problema a través de las cuales el alumnado pueda poner en práctica los saberes adquiridos, y la selección de los contenidos relevantes desde la perspectiva de una educación basada en competencias. Estos proyectos habrán de tener en cuenta la mejora global del centro. Se destinan 346.000 euros para estos proyectos.

Durante el presente curso 2018-2019, 88 proyectos de formación hacia la excelencia educativa –en alguna de las tres modalidades contempladas- han recibido subvención para su desarrollo en los centros educativos que los presentaron a la anterior convocatoria.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN APRUEBA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2019

- **El documento recoge 58 líneas subvencionales con 149,6 millones de euros**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, el Plan Estratégico de Subvenciones 2019 del Departamento de Educación. Este documento recoge la totalidad de las convocatorias de subvenciones gestionadas por las cuatro Viceconsejerías y las ocho Direcciones del Departamento de Educación, y concreta los objetivos y efectos que se buscan con su aplicación.

El Plan, de carácter programático, se configura como un instrumento de planificación de la política del Departamento de Educación en las áreas de actuación que tienen por objeto el fomento de actividades de interés social, mediante la concesión de subvenciones. De esta forma, esta herramienta garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en nuestro ámbito de actuación.

El Departamento de Educación tiene actualmente un total de 58 líneas subvencionales, cuyo importe global para el año 2019 asciende a los 149.688.664 euros. Entre estas 58 convocatorias destacan las becas y ayudas para la escolarización, las becas universitarias, aquellas destinadas a favorecer la movilidad del alumnado –tanto universitario como de Formación Profesional-, las dirigidas a la formación del profesorado, las que se ocupan del fomento de la investigación, las que tienen por objeto la adquisición de equipamiento para centros de FP o las dirigidas al acondicionamiento de instalaciones escolares de titularidad municipal, entre muchas otras.

Una vez aprobado en Consejo de Gobierno, el documento íntegro del Plan Estratégico de Subvenciones 2019 del Departamento de Educación se podrá consultar a partir de mañana, 21 de marzo, en la página web del Departamento de Educación.